

Zer gara?

- ✓ Irakaskuntzako langileen sindikatua gara, irakasle eta ez irakasleen topalekua, haur eskoletatik unibertsitateraino. Geurea hezkuntza delako.
- ✓ Euskal Herriko sindikatua: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan dihardugu 1977-1978 ikasturteetik hona.
- ✓ Ezkerreko sindikatua, gobernu eta patronalen erasoei erantzuteko eredu sindikal borrokalaria eta dinamika parte hartzailea bultzatzen dituena.
- ✓ Jarduera esparru laboraletik haratago eramaten dugu. Gizarte mugimenduekin elkarlanean aritzen gara eraldakuntza soziala bultzatzeko.

Zer aldarrikatzen dugu?

- ✓ **Langileen eskubideak.** Lan baldintza egokiak, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa; lan osasuna, berdintasuna eta lan banaketaren aldeko neurriak... Kolektibo ahulenak (ordezkoak, gazteak...) gure lehentasuna beti.
- ✓ **Gure hezkuntza erdua.** Gizarte kohesioa, euskalduntzea, hezkidetzak, kalitatea, bakea eta elkarbizitzarako hezkuntza, pertsonen garapen integrala eta kritikoa bermatzen duen hezkuntza sistema; **Euskal Eskola Publikoa** ardatza duena; eskola inklusiboa, laikoa, parte-hartzailea, kudeaketa demokratikoa.
- ✓ **Geure nortasuna herri gisa.** Gure etorkizuna erabakitzekeo eskubidea; pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak; elkarriketa eta giza eskubideak oinarritzeko normalizazioaren bidean.
- ✓ **Gizarte eredu berria.** Zerbitzu publiko indartsuak, aberastasunaren banaketa, garapen jasagarria, nazioarteko elkartasuna, kulturartekotasuna, generoen arteko berdintasuna eta gizarte eskubideak bultzatzen ditugu; militarismoaren, xenofobiaren, globalizazio neoliberalaren, pribatizazioen, inperialismoaren eta gizarte eskubideen murrizketen aurka aritzen gara.

Zer eskaintzen dizugu?

- ✓ **Sindikatuaren bizitzan eta erabakietan parte hartzea.** Zure iritzia zuzenean ematea, batzarretara bertaratzuz edo guri beste modu batez helaraziz.
- ✓ **Aholkularitza eta arreta pertsonalizatua.** Kontratuak, nominak, prozedura administratiboak, erretiroak, Seguritate Sozialeko kontuak, espedienteak, gatazkak, lan osasuna, arazo laboral espezifikoak, eskubide laboralak, arautegiak, deialdi publikoak...
- ✓ **Argibide zerbitzua.** Lan munduari, hezkuntzari eta esparru soziopolitikoari buruzko argibideak. Web, sms, posta elektronikoa eta eskura aldiro izango dituzun gure argitalpen idatzien bidez (dagokizun sektorekoa, Eskola Publikoa).
- ✓ **Zerbitzu juridikoak.** Doako aholkularitza, era zuzenean edo telefonoaren bidez; erreklamazioak edo helegiteak bideratzeko laguntza; zure interesak ordezkatzeko behar denean eta behar denaren aurrean...
- ✓ **Hezkuntzako material osagarriak.** Unitate didaktiko espezifikoak (berdintasuna, kooperazioa...), material alternatiboak, EPE prestatzeko materialak, hezkuntzako monografikoak, hitzaldiak...
- ✓ **Eilastasuna.** Nazioarteko elkartasunerako fondoak, hezkuntzari lotutako proiektuak bultzatzeko.
- ✓ **Prestakuntza.** Oinarritzeko trebakuntza sindikala gure delegatu eta ordezkarietat. Prestakuntza saio espezifikoagoak beste ataletan, afiliatu guztientzat, beharren arabera.